



Disoluzioak

Disoluzioaren kontzentrazioa

Disoluzio bat **saturatua** dela esaten da solutu gehiago disolbatu ezin duenean.

Disoluzio batek solutu gehiago disolbatu baldin badezake, disoluzio hori **ez-saturatua** da.

Disoluzio batek oso solutu gutxi baldin badu, disoluzioa **diluitua** dela esaten da; aldiz, solutu kantitate handia badu, disoluzio **kontzentratua** dela esaten da.



Disoluzioak

Disoluzioaren kontzentrazioa

Disoluzioaren kontzentrazioak solutuaren zein proportzio disolbatu den adierazten du.



Kontzentrazioaren unitate nagusienak hauek dira:

- **masaren ehunekoa:** ehun gramo disoluziotik zenbat gramo diren solutu

$$\% \text{ masa} = 100 \frac{\text{masa solutua}}{\text{masa disoluzioa}}$$
$$\% \text{ masa} = 100 \frac{\text{masa solutua}}{\text{masa solutua} + \text{masa disolbatzailea}}$$

- **g/L:** disoluzio litro bakoitzeko zenbat gramo solutu dauden

$$\text{kontz (g/L)} = \frac{\text{masa solutua}}{\text{bolumen disoluzioa}}$$



Disoluzioak

Disoluzioaren kontzentrazioa

Disoluzioaren kontzentrazioak solutuaren zein proportzio disolbatu den adierazten du.

• **mol/L** (edo **M**): disoluzio litro bakoitzeko zenbat mol solutu dauden

$$\text{kontz (mol/L)} = \text{kontz (M)} = \frac{\text{mol-kopurua solutua}}{\text{bolumen disoluzioa}}$$

$$\text{kontz (mol/L)} = \frac{10 \text{ g soluto}}{0,5 \text{ L disoluzio}} \frac{1 \text{ mol soluto}}{50 \text{ g soluto}} = 0,4 \frac{\text{mol}}{\text{L}} \text{ edo } 0,4 \text{ M}$$

